

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 07an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

AHMER ETA UDALAREN ARTEKO 2025 URTEKO HITZARMENAREN JUSTIFIKAZIOA, ETA 2026-2029 HITZARMEN BERRIA ETA DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko otsailaren 3an egindako bilkuran, **AMHER-SOS Arrazakeria** elkarte eta Udalaren arteko ordura arteko hitzarmena berritzea erabaki zuen, 2022-2025 epealdirako.

Aipatu hitzarmenaren xedea zera da: kulturartekotasuna eta jatorri ezberdineko jendearen eskubide berdintasuna bermatzea, eta horrez gain, hitzarmena berritzeko erabakiarekin, Florida 28an kokatuta dagoen Kulturarteko Plaza Feminista eraikineko bi gela erabiltzeko proposamena jaso nahi izan zen, elkarteari bideratutako zuzeneko dirulaguntzaren kopurua egokituz: 72.000 euro urtean, lau epetan ordaintzeko: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

Hitzarmenaren 17. klausulak dioenarekin bat, AMHER-SOS Arrazakeria elkarteak garaiz eta dagokion epean aurkeztu du 2025eko ekitaldiko dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa, 2026ko otsailaren 28 baino lehen, hain zuzen. Memoria, xehetasunez adieraziz urtean zehar egindako eta diruz lagundutako jarduerak; balantze ekonomikoa, eta bestelako ziurtagiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko maiatzaren 07ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ** erabaki du

- 1.- 2025eko justifikazio txostena eta dirulaguntza likidazioa onartzea
- 2.- 2026-2029rako hitzarmen berria onartzea.
- 3.- 2026ko dirulaguntza onartzea, 83.000 euro hain zuzen ere, aurrekontu partida honetatik 1 1622 481 03 231 02 2026 Dirulaguntza: AMHER

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsuak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko bitarteko Udal Idazkaria
Hernanin 202ko maiatzaren 07an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoaren bitartez

